



Pello Mariñelarena Imatz eusko gudaria omenduko dute Etxarri-Aranatzen

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 15/05/2025

Parisko La Santé espetxean bahituta zegoenean hil zen, mediku arreta egokirik gabe eta kartzelako osasun baldintza penagarrien ondorioz.

Aurten 32 urte beteko dira Frantziako kartzela sistemak Pello Mariñelarena Imaz ETako militantea erail zuenetik, eta hori dela eta, ekitaldi bat antolatu du JARDUN Koordinadorak igandean Etxarri-Aranatzeko plazan(13:00).

1990eko azaroaren 30ean, Britainian atxilotu, eta Parisko La Santé espetxean sartu zuten. Kartzelan bi urte eta erdi zeramatzala, gaizki sentitzen hasi zen: HIESA diagnostikatu zioten. Mediku arreta egokirik gabe eta kartzelako osasun baldintza penagarrien ondorioz, hilabete baten buruan hil zen, 1993ko maiatzaren 15ean, Parisko Antoine Beclere Ospitalean, Fresnesko Ospitaletik bertara eraman ondoren. Amnistiaren Aldeko Batzordeek salatu zuten mediku arretaren faltagatik hil zela.

<https://eh.lahaine.org/pello-marinelarena-imatz-eusko-gudaria>